EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# Lanbide Heziketa EAEn

# *La Formación Profesional en la CAPV*

**(Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila -**
***Dpto. de Educación, Universidades e Investigación)***

**2007ko azaroa**

***Noviembre 2007***




http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

# Aurkibidea / *Índice*


SARRERA / *INTRODUCCIÓN* ........ 1

LABURPENA / *SÍNTESIS* ........ 3

LANBIDE HEZIKETA / *FORMACIÓN PROFESIONAL* ........ 5

- **Euskadiko Lanbide Heziketaren balorazioa** / *Valoración de la Formación Profesional en el País Vasco* ........ 6
- **Lanbide Heziketaren balorazioaren konparazioa Estatuarekin /** *Comparación de la valoración de la Formación Profesional con el resto del Estado* ........ 8
- **Lan mundurako prestakuntza Lanbide Heziketarekin** / *Preparación laboral con la Formación Profesional* ........ 10
- **Lana aurkitzeko erraztasuna** / *Facilidad para encontrar trabajo* ........ 12
- **Lanbide Heziketa edo unibertsitatea nahiago izatea** / *Preferencia entre Formación Profesional y Universidad* ........ 14

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / *FICHA TÉCNICA* ........ 16

# Sarrera / *Introducción*

## Helburuak / *Objetivos*

Txosten honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eskaintzen den Lanbide Heziketaren inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzea da. Horretarako, Lanbide Heziketaren berariazko hainbat alderditan sakondu da, hala nola, Lanbide Heziketari buruzko balorazioa, Estatuko gainontzeko lurraldeetan eskaintzen denarekiko konparazioa, lan mundurako duen balioa eta Lanbide Heziketa edo unibertsitatea nahiago izatea.

Gai honen inguruan aurreko epeetako datuak dauzkagu, zehatzago 2002 eta 2004koak, hori dela eta euskal herritarren iritzien eboluzioaren ikuspegi kronologikoa eskaini dezakegu.

El objetivo del presente informe es conocer la opinión de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la Formación Profesional ofertada en la CAPV. Para ello se ahondará en aspectos específicos relacionados con la valoración de la Formación Profesional, comparación con la ofertada en el resto del Estado, su valor para el mundo del trabajo y la preferencia entre la Formación Profesional y la universidad.

En relación a este tema se dispone de datos relativos a períodos anteriores, más concretamente de 2002 y 2004, con lo que se puede ofrecer una visión cronológica de la evolución de las opiniones de la población vasca.

## Informazioaren iturria / *Origen de la información*

Lan honetako emaitzak 2007ko urrian Euskal Soziometroen bildumaren 35. ikerketan erabilitako berariazko galdesortatik datoz.

Inkestan planteatzen diren gai zehatzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako eskaera batean oinarritu dira eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen lankidetzarekin landu dira. Galderak prestatzea, azterketa estatistikoa eta, txostenaren idazketa eta edizioa, Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas ad hoc incluidas en el cuestionario del estudio nº 35 de la serie de Sociómetros Vascos, realizado en octubre de 2007.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una petición del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. La elaboración de las correspondientes preguntas, el análisis estadístico y la redacción y edición del informe corresponden al Gabinete de Prospección Sociológica.

## Kolektibokako azterketa / *Análisis por colectivos*

Inkestako datuak aztertzen dira ez bakarrik biztanleria osoari dagozkion datuetatik abiatuta, baizik eta, gizarte-kolektiboen artean aldagai soziodemografiko eta soziopolitikoen araberako ezberdintasun adierazgarriek osatzen dituzten multzoak ere oinarri izanik. Aztertutako aldagaiak (eta osatutako azpitaldeak, letra etzanaz agertzen direnak) honakoak dira:

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa.*
- Sexua: *emakumezkoa* eta *gizonezkoa.*
- Ikasketa maila: *lehen maila baino gutxiagokoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak* eta *goi-mailakoak.*
- Lan egoera: *lanean, langabezian, etxeko lanak, ikasten* eta *jubilatua*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase baxua edo langileena), *ertaina* eta *altua* (ertaina-altua edo diruduna).

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales. Las variables consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son los siguientes:

- Territorio*: Araba, Bizkaia* y *Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón* y *mujer*.
- Nivel de estudios: *<primario, primario, secundario* y *superior*.
- Ocupación principal: *trabajando, en paro, labores de casa, estudiando* y *jubilado/a*.
- Clase social sentida: *baja* (media baja u obrera), *media* y *alta* (media-alta o acomodada).

# Laburpena / *Síntesis*

## Puntuz puntu / *Punto por punto*

### *NOLA BALORATZEN DUGU EAE-N ESKAINITAKO LANBIDE HEZIKETA?*

Biztanleen %65ek uste dute Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa ona dela, %18k hala-holakoa dela eta soilik %3k uste dute txarra dela. Estatuko gainontzeko tokietan eskaintzen denarekin konparatuta, %36k diote hemengoa hobea dela, %28k antzekoa dela eta bakarrik %2k diote txarragoa dela.

### *LANBIDE HEZIKETA ETA LAN MUNDUA*

Bestalde, herritarren hiru laurdenek (%77k) uste dute LHk gazteak egoki prestatzen dituela lan munduan sartzeko eta, aldiz, %10ek uste dute ezetz. Gainera, %64k Lanbide Heziketa ikasita lana aurkitzea errazagoa dela deritzote eta %16k errazago deritzote unibertsitateko ikasketak eginda; beste %12k uste dute egindako ikasketen araberakoa dela erraztasuna.

### *LANBIDE HEZIKETA ALA UNIBERTSITATEA DUGU NAHIAGO?*

Lanbide Heziketaren balorazioa positiboa izan arren, norberarentzat edo beren seme-alabentzat LHko modulua edo unibertsitateko karrera ikastearen artean aukeratzerakoan, %47k unibertsitatea aukeratuko lukete eta, aldiz, %35ek LH.

### *¿CÓMO VALORAMOS LA FORMACIÓN PROFESIONAL IMPARTIDA EN LA CAPV?*

El 65% de la población vasca cree que la Formación Profesional impartida a la juventud en el País Vasco es buena, un 18% la considera regular y tan sólo un 2% la considera mala. Comparándola con la ofrecida en el resto del Estado, un 36% cree que la vasca es mejor, un 28% piensa que es igual y únicamente un 2% señala que es peor.

### *LA FORMACIÓN PROFESIONAL Y EL TRABAJO*

Por otro lado, tres cuartos de la ciudadanía (77%) estiman que la FP prepara adecuadamente a la juventud para incorporarse al mundo laboral, frente al 10% que opina que no. Además, el 64% cree que es más fácil encontrar trabajo habiendo estudiado Formación Profesional frente a un 16% que lo considera más fácil habiendo estudiado una carrera universitaria; otro 12% opina que ello depende de los estudios cursados.

### *¿PREFERIMOS LA FORMACIÓN PROFESIONAL O LA UNIVERSIDAD?*

A pesar de la positiva valoración de la Formación Profesional, al plantearse el tener que elegir para sí mismos o para sus hijos e hijas entre estudiar un módulo de FP o una carrera universitaria, el 47% optaría por la Universidad frente al 35% que optaría por la FP.

## Aurreko neurketekin alderatuz / *Respecto a períodos anteriores*

2002tik gaur arte, administrazioak Lanbide Heziketa arloan egin duenari buruz Euskadiko herritarrek duten iritziak ez du ia aldaketarik jaso: 2002an %62k ona zela bazioten, 2007an %65ek dute uste bera. Halaber, EAEn eskaintzen den LH Estatuko gainontzekoarekin konparatzerakoan ere, ez da jendearen iritzian bilakaerarik ia nabari.

Bestalde, azken bost urteetan zehar Lanbide Heziketak gazteak lan munduan sartzeko egoki prestatzen dituela uste dutenen kopurua igo egin da eta lana aurkitzea LH ikasita unibertsitateko ikasketak ikasita baino errazagoa dela uste dutenen kopurua bere horretan mantendu da. Gainera, norberarentzat edo euren seme-alabentzat Lanbide Heziketako ikasketak aukeratuko lituzketenen kopuruak pixka bat gora egin du urte hauetan zehar, unibertsitate ikasketak aukeratuko lituzketenen aurrez aurre.

Desde 2002 hasta la actualidad, la opinión de la ciudadanía respecto a la labor de la administración en la Formación Profesional casi no ha sufrido variaciones: si en 2002 un 62% declaraba que era buena, en 2007 hay un 65% que tiene la misma opinión. Asimismo, no hay casi variaciones en la opinión de la gente al comparar la FP ofrecida en la CAPV con la del resto del Estado.

Por otro lado, durante los últimos cinco años ha aumentado el porcentaje de quienes creen que la Formación Profesional prepara adecuadamente a los jóvenes para incorporarse al mundo laboral y se ha mantenido el de quienes creen que estudiando FP es más fácil encontrar trabajo que estudiando una carrera universitaria. Además, durante estos años, ha aumentado ligeramente el número de quienes elegirían un módulo de Formación Profesional para sí mismos o para sus hijos, frente a quienes elegirían estudios universitarios.

# - Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

- **Euskadiko Lanbide Heziketaren balorazioa /**
  ***Valoración de la Formación Profesional en el País Vasco***
- **Lanbide Heziketaren balorazioaren konparazioa Estatuarekin /**
  ***Comparación de la valoración de la Formación Profesional con el resto del Estado***
- **Lan mundurako prestakuntza Lanbide Heziketarekin /**
  ***Preparación laboral con la Formación Profesional***
- **Lana aurkitzeko erraztasuna /** ***Facilidad para encontrar trabajo***
- **Lanbide Heziketa edo unibertsitatea nahiago izatea /**
  ***Preferencia entre Formación Profesional y Universidad***

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Euskadiko Lanbide Heziketaren balorazioa / *Valoración de la Formación Profesional en el País Vasco*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA) / *(TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

**Zure ustez, gaur egun Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa nolakoa da: ona, hala-holakoa edo txarra?**

*¿Actualmente cree que la Formación Profesional que se ofrece a los jóvenes en el País Vasco es buena, regular o mala?*

| | 2002KO MAIATZA *MAYO 2002* | 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* | 2007KO URRIA *OCTUBRE 2007* |
|---|---|---|---|
| ONA / *BUENA* | 62 | 62 | 65 |
| HALA-HOLAKOA / *REGULAR* | 18 | 15 | 18 |
| TXARRA / *MALA* | 3 | 2 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 17 | 21 | 14 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 |




☑ Euskal herritarren la bi herenek (%65ek) uste dute ikasleei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa ona dela, %18k hala-holakoa dela eta soilik %3k txarra dela. Gainontzeko %14k ez dute baloratu.

☑ Azken urteetan zehar ez dakusagu Euskadin eskaintzen den Lanbide Heziketari buruzko balorazioan aldaketa esanguratsurik.

☑ Casi dos tercios de la ciudadanía vasca (65%) creen que la Formación Profesional ofrecida a los alumnos es buena, un 18% que es regular y únicamente un 3% que es mala. El restante 14% no lo ha valorado.

☑ A lo largo de los últimos años no se observan diferencias significativas en la valoración de la Formación Profesional ofertada en el País Vasco.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Euskadiko Lanbide Heziketaren balorazioa / *Valoración de la Formación Profesional en el País Vasco*

(KOLEKTIBOKA) / *(POR COLECTIVOS)*

**Zure ustez, gaur egun Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa nolakoa da: ona, hala-holakoa edo txarra?**

*¿Actualmente cree que la Formación Profesional que se ofrece a los jóvenes en el País Vasco es buena, regular o mala?*

| | 2007KO URRIA / OCTUBRE 2007 | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | LANBIDE NAGUSIA / *OCUPACIÓN PRINCIPAL* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *HOMBRE* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | LANEAN *TRABAJANDO* | LANGABEZIAN *EN PARO* | ETXEKO LANAK *LABORES DE CASA* | IKASTEN *ESTUDIANDO* | JUBILATUA *JUBILADO/A* |
| ONA / *BUENA* | **65** | 62 | 63 | 71 | 65 | 65 | 66 | 67 | 66 | 69 | 60 |
| HALA-HOLAKOA / *REGULAR* | **18** | 22 | 19 | 15 | 18 | 18 | 19 | 20 | 15 | 20 | 17 |
| TXARRA / *MALA* | **3** | 2 | 3 | 3 | 4 | 2 | 4 | 2 | 2 | 3 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | **14** | 13 | 15 | 11 | 13 | 14 | 11 | 11 | 17 | 8 | 21 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | **100** | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK *<PRIMARIOS* | LEHEN MAILAKOAK *PRIMARIOS* | BIGARREN MAILAKOAK *SECUNDARIOS* | GOI-MAILAKOAK *SUPERIORES* | BAXUA *BAJO* | ERDIKOA *MEDIO* | ALTUA *ALTO* |
| ONA / *BUENA* | 56 | 66 | 66 | 68 | 62 | 67 | 67 |
| HALA-HOLAKOA / *REGULAR* | 17 | 18 | 18 | 19 | 19 | 17 | 22 |
| TXARRA / *MALA* | 3 | 3 | 4 | 2 | 4 | 3 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 24 | 14 | 11 | 11 | 15 | 13 | 9 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Talde guztietan gehiengoa osatu dute hemen eskainitako Lanbide Heziketa ona dela diotenek. Alabaina, hobekien baloratu dute gipuzkoarrek, jubilatuta ez daudenek, gutxienez lehen mailako ikasketak dituztenek edota klase sozial ertain edo altukoek.

☑ En todos los colectivos conforman la mayoría quienes consideran que la Formación Profesional ofrecida aquí es buena. De cualquier manera, quienes mejor la valoran son las y los guipuzcoanos, quienes no están jubilados, quienes tienen al menos estudios primarios y/o quienes se sienten de clase media o alta.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Lanbide Heziketaren balorazioaren konparazioa Estatuarekin / *Comparación de la valoración de la Formación Profesional con el resto del Estado*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA) / *(TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

**Eta Estatuko beste herrialdeekin konparatuz gero, uste duzu hemengoa hobea, antzekoa edo txarragoa dela?**

*Y en comparación con el resto del Estado, ¿cree que es mejor, igual o peor?*

| | 2002KO MAIATZA<br>*MAYO 2002* | 2004KO URTARRILA<br>*ENERO 2004* | 2007KO URRIA<br>*OCTUBRE 2007* |
|---|---|---|---|
| HOBEA / *MEJOR* | 35 | 29 | 36 |
| ANTZEKOA / *IGUAL* | 28 | 25 | 28 |
| TXARRAGOA / *PEOR* | 1 | 1 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | 36 | 45 | 34 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 |




☑ Biztanleen %36k uste dute Euskadin eskaintzen den Lanbide Heziketa Estatuko gainontzeko lurraldeetan eskaintzen dena baino hobea dela. Beste %28k uste dute antzekoa dela eta soilik %2k diote txarragoa dela. Jendearen %34k ez du iritzirik eskaini.

☑ 2004tik 2007ra artean Euskadin Lanbide Heziketaren egoera hobea dela uste dutenen portzentaia pixka bat hazi egin da eta berriro 2002an jasotakoaren parera iritsi da.

☑ Un 36% de la población cree que la Formación Profesional ofrecida en el País Vasco es mejor que la del resto de territorios del Estado. Otro 28% cree que es igual y solamente un 2% afirma que es peor. Un 34% de la gente no ha expresado su opinión.

☑ Entre 2004 y 2007 ha aumentado ligeramente el porcentaje de quienes consideran que la Formación Profesional ofertada en el País Vasco es mejor y vuelve a alcanzar el porcentaje recogido en 2002.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Lanbide Heziketaren balorazioaren konparazioa Estatuarekin / *Comparación de la valoración de la Formación Profesional con el resto del Estado*

(KOLEKTIBOKA) / *(POR COLECTIVOS)*

**Eta Estatuko beste herrialdeekin konparatuz gero, uste duzu hemengoa hobea, antzekoa edo txarragoa dela?**

*Y en comparación con el resto del Estado, ¿cree que es mejor, igual o peor?*

| | 2007KO URRIA / OCTUBRE 2007 | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | LANBIDE NAGUSIA / *OCUPACIÓN PRINCIPAL* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *HOMBRE* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | LANEAN *TRABAJANDO* | LANGABEZIAN *EN PARO* | ETXEKO LANAK *LABORES DE CASA* | IKASTEN *ESTUDIANDO* | JUBILATUA *JUBILADO/A* |
| HOBEA / *MEJOR* | 36 | 36 | 31 | 44 | 38 | 33 | 39 | 36 | 33 | 37 | 30 |
| ANTZEKOA / *IGUAL* | 28 | 33 | 32 | 19 | 28 | 28 | 27 | 31 | 26 | 31 | 29 |
| TXARRAGOA / *PEOR* | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 0 | 2 | 1 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 34 | 28 | 36 | 35 | 32 | 37 | 32 | 34 | 39 | 31 | 38 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK *<PRIMARIOS* | LEHEN MAILAKOAK *PRIMARIOS* | BIGARREN MAILAKOAK *SECUNDARIOS* | GOI-MAILAKOAK *SUPERIORES* | BAXUA *BAJO* | ERDIKOA *MEDIO* | ALTUA *ALTO* |
| HOBEA / *MEJOR* | 26 | 33 | 39 | 41 | 33 | 36 | 42 |
| ANTZEKOA / *IGUAL* | 25 | 32 | 25 | 26 | 27 | 28 | 31 |
| TXARRAGOA / *PEOR* | 3 | 2 | 3 | 1 | 2 | 2 | 4 |
| ED-EE / *NS-NC* | 47 | 33 | 33 | 32 | 38 | 33 | 23 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Gipuzkoarrek eta gizonek Euskadin eskaintzen den LH Estatuko gainontzeko tokietan ematen dena baino hobea dela diote besteek baino neurri handiagoan. Halaber, ikasketa maila eta hautemandako klase soziala igo ahala ere, handituz doa hemengoa hobea dela uste dutenen kopurua.

☑ Las y los guipuzcoanos y los hombres señalan en mayor medida que el resto que la Formación Profesional ofertada en el País Vasco es mejor que la del resto del Estado. Asimismo, a medida que aumentan el nivel de estudios y la clase social sentida aumenta el porcentaje de quienes la consideran mejor.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Lan mundurako prestakuntza Lanbide Heziketarekin / *Preparación laboral con la Formación Profesional*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA) / *(TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

**Zure iritzia, Euskadin irakasten den Lanbide Heziketak egoki prestatzen ditu gazteak lan munduan sartzeko?**

*¿Diría Ud. que la Formación Profesional que se da a los y las jóvenes vascas les prepara adecuadamente para incorporarse al mundo laboral?*

| | 2002KO MAIATZA<br>*MAYO 2002* | 2004KO URTARRILA<br>*ENERO 2004* | 2007KO URRIA<br>OCTUBRE 2007 |
|---|---|---|---|
| BAI / *Sí*........ | 71 | 67 | 77 |
| EZ / *NO* ........ | 13 | 13 | 10 |
| ED-EE / *NS-NC*........ | 16 | 20 | 12 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* ........ | 100 | 100 | 100 |




☑ Euskadiko herritarren hiru laurdenek (%77k) uste dute Lanbide Heziketak egoki prestatzen dituela gazteak lan mundura bideratzeko eta %10ek ezetz uste dute.

☑ LHk gazteak lan munduan sartzeko egoki prestatzen dituela uste dutenen kopuruak gorantz egin du aurreko neurketekiko, inolako baloraziorik ematen ez dutenen kaltean.

☑ Tres cuartos de la ciudadanía vasca (77%) cree que la Formación Profesional prepara adecuadamente a los jóvenes para incorporarse al mundo laboral y un 10% cree que no lo hace.

☑ Con respecto a anteriores mediciones, ha aumentado el porcentaje de quienes consideran que la FP prepara adecuadamente a los jóvenes para incorporarse al mundo laboral, en detrimento de quienes no emiten valoración alguna.

# Lanbide Heziketa / Formación Profesional

## Lan mundurako prestakuntza Lanbide Heziketarekin / Preparación laboral con la Formación Profesional

(KOLEKTIBOKA) / (POR COLECTIVOS)

**Zure iritziz, Euskadin irakasten den Lanbide Heziketak egoki prestatzen ditu gazteak lan munduan sartzeko?**

*¿Diría Ud. que la Formación Profesional que se da a los y las jóvenes vascas les prepara adecuadamente para incorporarse al mundo laboral?*

| | 2007KO URRIA / OCTUBRE 2007 | LURRALDEA / TERRITORIO | | | SEXUA / SEXO | | LANBIDE NAGUSIA / OCUPACIÓN PRINCIPAL | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / HOMBRE | EMAKUMEZKOA / MUJER | LANEAN / TRABAJANDO | LANGABEZIAN / EN PARO | ETXEKO LANAK / LABORES DE CASA | IKASTEN / ESTUDIANDO | JUBILATUA / JUBILADO/A |
| BAI / Sí | 77 | 74 | 76 | 80 | 77 | 77 | 78 | 77 | 77 | 80 | 74 |
| EZ / No | 10 | 13 | 10 | 10 | 12 | 9 | 13 | 11 | 9 | 9 | 8 |
| ED-EE / Ns-Nc | 12 | 13 | 14 | 10 | 11 | 14 | 9 | 13 | 14 | 11 | 18 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /(PORCENTAJES VERTICALES) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / CLASE SOCIAL SENTIDA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | BAXUA / BAJO | ERDIKOA / MEDIO | ALTUA / ALTO |
| BAI / Sí | 69 | 76 | 80 | 79 | 75 | 79 | 75 |
| EZ / No | 9 | 10 | 12 | 10 | 12 | 10 | 12 |
| ED-EE / Ns-Nc | 22 | 14 | 8 | 12 | 13 | 12 | 13 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /(PORCENTAJES VERTICALES) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Talde guztietan gehiengoak deritzo Euskadin eskainitako LHk gazteei lan munduan sartzeko prestaketa egokia ematen diela.

☑ Gipuzkoarrak, ikasleak eta klase ertainekoak dira egokien baloratu dutenak LHk eskaintzen duen lanerako prestakuntza. Aldi berean, bigarren edo goi-mailako ikasketak dituztenek ere hobeto baloratu dute.

☑ En todos los colectivos es mayoritaria la idea de que la FP ofertada a la juventud vasca es adecuada para incorporarse al mundo laboral.

☑ Las y los guipuzcoanos, las y los estudiantes y quienes se consideran de clase media son quienes valoran como más adecuada la formación ofrecida por la FP para incorporse al mundo laboral. Asimismo, quienes tienen estudios secundarios o superiores también lo han valorado mejor.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Lana aurkitzeko erraztasuna / *Facilidad para encontrar trabajo*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA) / *(TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

**Eta zure iritziz, gazte batek nola lortu ahal du lana errazago: Lanbide Heziketa ikasita ala unibertsitateko karrera bat ikasita?**

*¿Y cree que es más fácil para un joven encontrar trabajo estudiando Formación Profesional o estudiando una carrera universitaria?*

| | 2002KO MAIATZA *MAYO 2002* | 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* | 2007KO URRIA *OCTUBRE 2007* |
|---|---|---|---|
| LANBIDE HEZIKETA IKASITA / *ESTUDIANDO FORMACIÓN PROFESIONAL* | 62 | 59 | 64 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT IKASITA / *ESTUDIANDO UNA CARRERA UNIVERSITARIA* | 12 | 15 | 16 |
| IKASKETA MOTAREN ARABERA* / *DEPENDE DE LOS ESTUDIOS** | 17 | 18 | 12 |
| ED-EE / *NS-NC* | 9 | 8 | 8 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 |

*ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN IRAKURTZEN INKESTATUEI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LEIA A LOS ENCUESTADOS/AS*




☑ Herritarren %64k uste dute Lanbide Heziketa ikasita errazagoa dela lana lortzea eta, aldiz, %16k unibertsitateko ikasketak eginda errazagoa dela. Beste %12k uste dute erraztasuna ikasketa motaren araberakoa dela.

☑ Aurreko urteekin alderatuta, gazteek LH ikasita lana lortzea errazago dela uste dutenen kopuruak pixka bat gora egin du eta orain arteko altuena da.

☑ Un 64% de la ciudadanía cree que es más fácil encontrar trabajo estudiando Formación Profesional frente a un 16% que cree que es más fácil estudiando una carrera universitaria. Otro 12% cree que la facilidad depende del tipo de estudios.

☑ Comparando con los años anteriores, ha aumentado ligeramente el número de quienes consideran que para un joven es más fácil encontrar trabajo estudiando FP y es el porcentaje más alto hasta ahora.

# Lanbide Heziketa / Formación Profesional

## Lana aurkitzeko erraztasuna / Facilidad para encontrar trabajo

(KOLEKTIBOKA) / (POR COLECTIVOS)

**Eta zure iritziz, gazte batek nola lortu ahal du lana errazago: Lanbide Heziketa ikasita ala unibertsitateko karrera bat ikasita?**

*¿Y cree que es más fácil para un joven encontrar trabajo estudiando Formación Profesional o estudiando una carrera universitaria?*

| | 2007KO URRIA / OCTUBRE 2007 | LURRALDEA / TERRITORIO | | | SEXUA / SEXO | | LANBIDE NAGUSIA / OCUPACIÓN PRINCIPAL | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / HOMBRE | EMAKUMEZKOA / MUJER | LANEAN / TRABAJANDO | LANGABEZIAN / EN PARO | ETXEKO LANAK / LABORES DE CASA | IKASTEN / ESTUDIANDO | JUBILATUA / JUBILADO/A |
| LANBIDE HEZIKETA IKASITA / ESTUDIANDO FORMACIÓN PROFESIONAL | 64 | 64 | 62 | 68 | 66 | 62 | 70 | 67 | 64 | 56 | 54 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT IKASITA / ESTUDIANDO UNA CARRERA UNIVERSITARIA | 16 | 16 | 17 | 13 | 17 | 15 | 13 | 14 | 13 | 25 | 20 |
| IKASKETA MOTAREN ARABERA* / DEPENDE DE LOS ESTUDIOS* | 12 | 9 | 13 | 10 | 10 | 14 | 11 | 10 | 11 | 13 | 13 |
| ED-EE / NS-NC | 8 | 11 | 7 | 9 | 7 | 10 | 6 | 9 | 11 | 6 | 13 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / CLASE SOCIAL SENTIDA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | BAXUA / BAJO | ERDIKOA / MEDIO | ALTUA / ALTO |
| LANBIDE HEZIKETA IKASITA / ESTUDIANDO FORMACIÓN PROFESIONAL | 49 | 62 | 68 | 70 | 65 | 65 | 58 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT IKASITA / ESTUDIANDO UNA CARRERA UNIVERSITARIA | 21 | 19 | 13 | 11 | 13 | 16 | 24 |
| IKASKETA MOTAREN ARABERA* / DEPENDE DE LOS ESTUDIOS* | 13 | 11 | 13 | 12 | 13 | 11 | 12 |
| ED-EE / NS-NC | 18 | 9 | 6 | 6 | 10 | 8 | 7 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN IRAKURTZEN INKESTATUEI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LEIA A LOS ENCUESTADOS/AS

☑ Lana aurkitzea Lanbide Heziketa ikasita unibertsitateko ikasketak eginda baino errazagoa dela uste dutenak gainerako taldeetan baino gehiago dira gipuzkoarren, lan egiten dutenen edota bigarren edo goi-mailako ikasketak dituztenen artean.

☑ Nabarmentzekoa da ikasleen, oinarrizko ikasketak edo gutxiago dituztenen edota klase sozial altukoak direla diotenen artean besteetan baino hedatuago dagoela unibertsitateko ikasketak eginda lana aurkitzea errazagoa den ustea.

☑ Quienes señalan que es más fácil encontrar trabajo estudiando Formación Profesional que estudiando una carrera universitaria son más entre las y los guipuzcoanos, quienes trabajan y/o quienes tienen estudios medios o superiores, que en el resto de colectivos.

☑ Es de destacar que entre las y los estudiantes, quienes tienen estudios primarios o menores y/o se consideran de clase alta creen en mayor medida que el resto que es más fácil encontrar trabajo estudiando una carrera universitaria.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## Lanbide Heziketa edo Unibertsitatea nahiago izatea/ *Preferencia entre FormaciónProfesional y Universidad*

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA) / *(TOTALES Y EVOLUCIÓN)*

**Zure egoera pertsonala albo batera utzita, une honetan zuk zeuk edo zure seme-alabaren batek aukeratu beharko balu, zer nahiago zenuke: Lanbide Heziketako modulu bat egin ala Unibertsitateko karrera bat egin?**

*Independientemente de cuál sea su situación actual, si en este momento Ud. o sus hijos o hijas tuvieran que elegir entre estudiar algún módulo de Formación Profesional o estudiar una carrera en la Universidad, ¿qué preferiría Ud.?*

| | 2002KO MAIATZA *MAYO 2002* | 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* | 2007KO URRIA *OCTUBRE 2007* |
|---|---|---|---|
| LANBIDE HEZIKETAKO MODULU BAT EGIN / *ESTUDIAR UN MÓDULO DE FORMACIÓN PROFESIONAL* | 28 | 29 | 35 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT EGIN / *ESTUDIAR UNA CARRERA EN LA UNIVERSIDAD* | 46 | 44 | 47 |
| ED-EE / *NS-NC* | 25 | 27 | 18 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 |




☑ Euskadiko biztanleek, norberarentzat edo euren seme-alabentzat ikasketak aukeratu behar balituzkete, %47k ikasketa unibertsitarioak aukeratuko lituzkete eta %35ek Lanbide Heziketa.

☑ Aurreko urteetako datuekin alderatuz, LH aukeratuko luketen herritarren kopuruak gorantz egin du eta unibertsitateko ikasketen aldekoak antzera mantentzen dira.

☑ Si tuvieran que elegir, para sí mismos o para sus hijos o hijas, un 47% de las y los ciudadanos vascos elegirían una carrera universitaria frente a un 35% que elegirían la Formación Profesional.

☑ En comparación con datos de años anteriores, ha aumentado el número de quienes elegirían la Formación Profesional y se mantiene la de quienes elegirían una carrera universitaria.

# Lanbide Heziketa / *Formación Profesional*

## LH edo Unibertsitatea nahiago izatea/ *Preferencia entre FP y Universidad*

(KOLEKTIBOKA) / *(POR COLECTIVOS)*

**Zure egoera pertsonala albo batera utzita, une honetan zuk zeuk edo zure seme-alabaren batek aukeratu beharko balu, zer nahiago zenuke: Lanbide Heziketako modulu bat egin ala unibertsitateko karrera bat egin?**

*Independientemente de cuál sea su situación actual, si en este momento Ud. o sus hijos o hijas tuvieran que elegir entre estudiar algún módulo de Formación Profesional o estudiar una carrera en la Universidad, ¿qué preferiría Ud.?*

| | 2007KO URRIA / OCTUBRE 2007 | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | LANBIDE NAGUSIA / *OCUPACIÓN PRINCIPAL* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *HOMBRE* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | LANEAN *TRABAJANDO* | LANGABEZIAN *EN PARO* | ETXEKO LANAK *LABORES DE CASA* | IKASTEN *ESTUDIANDO* | JUBILATUA *JUBILADO/A* |
| LANBIDE HEZIKETAKO MODULU BAT EGIN / *ESTUDIAR UN MÓDULO DE FORMACIÓN PROFESIONAL* | 35 | 36 | 37 | 31 | 36 | 33 | 37 | 37 | 36 | 28 | 33 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT EGIN / *ESTUDIAR UNA CARRERA EN LA UNIVERSIDAD* | 47 | 48 | 45 | 49 | 47 | 47 | 44 | 40 | 47 | 62 | 46 |
| ED-EE / *NS-NC* | 18 | 16 | 18 | 20 | 17 | 20 | 19 | 23 | 17 | 10 | 21 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK *<PRIMARIOS* | LEHEN MAILAKOAK *PRIMARIOS* | BIGARREN MAILAKOAK *SECUNDARIOS* | GOI-MAILAKOAK *SUPERIORES* | BAXUA *BAJO* | ERDIKOA *MEDIO* | ALTUA *ALTO* |
| LANBIDE HEZIKETAKO MODULU BAT EGIN / *ESTUDIAR UN MÓDULO DE FORMACIÓN PROFESIONAL* | 29 | 40 | 38 | 26 | 40 | 33 | 25 |
| UNIBERTSITATEKO KARRERA BAT EGIN / *ESTUDIAR UNA CARRERA EN LA UNIVERSIDAD* | 46 | 45 | 44 | 53 | 41 | 49 | 60 |
| ED-EE / *NS-NC* | 25 | 15 | 18 | 21 | 18 | 18 | 15 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Talde guztietan gehiago dira berentzat edo seme-alabentzat unibertsitateko ikasketak egitea LH ikastea baino nahiago dutenak.

☑ Ikasleak, ikasketa maila altua dutenak edota klase altuan kokatzen direnak dira unibertsitateko ikasketen aldekoenak. Aldiz, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenak edota klase baxukoak direla diotenak LH ikastearen aldekoagoak dira.

☑ En todos los colectivos son más quienes preferirían una carrera universitaria para sí mismos o para sus hijas e hijos que estudiar FP.

☑ Las y los estudiantes, quienes tienen estudios superiores y/o se consideran de clase alta son los más partidarios de los estudios universitarios. Mientras que quienes tienen estudios primarios o secundarios y/o se consideran de clase baja son más partidarios de estudiar FP.

# Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Informazio bilketa **2007ko irailaren 25a eta urriaren 10a bitartean** egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

**Lagina**, 15 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 644 pertsona Araban, 1.330 Bizkaian eta 1.022 Gipuzkoan, beraz, 2.996 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin*-, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren araberako kuoten bidez aukeratuz. Jarraian, emaitzak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2005eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako boto oroimenaren arabera haztatu dira.

Ikerketaren **diseinua** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen arteko elkarlanean oinarritzen da, baina emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Bestaldetik, informazio bilketa Lurra eraikina, Txingurri pasealekua, 28-30, 2., 20017 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

2.996 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen estimazioa**, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, ±%1,87koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

Inkesten %67,6 **telefono bidez kontrolatu** da eta %8,2, berriz, etxean bertan. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak–.

Aztertutako datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai Euskal Autonomia Erkidegorako (EAErako), baita lurralde bakoitzerako ere, lagin adierazgarri egokia erabiliz eta inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia objektibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: batetik 2005eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako botoaren banaketa erreala eta bestetik, adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizialak.

(*) Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zatien" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiena), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

La recogida de información se realizó entre **el 25 de septiembre y el 10 de octubre de 2007** -ambos inclusive- a través de entrevista individual mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada a domicilio a una muestra representativa de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

La **muestra**, dirigida a una población de 15 y más años, se distribuyó del siguiente modo: 644 personas en Araba, 1.330 en Bizkaia y 1.022 en Gipuzkoa, lo que supone un total de 2.996 personas entrevistadas. La selección se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias -a partir de un total de 214 puntos de muestreo- y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las Elecciones al Parlamento Vasco de 2005, en cada uno de los tres Territorios.

El **diseño** de la investigación es compartido entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco, mientras que el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica. La recogida de información fue realizada por la empresa *Ikertalde,* sita en Paseo Txingurri, 28-30, 2º, 20017, Donostia-San Sebastián.

El **error muestral** correspondiente a esta muestra de 2.996 individuos, y atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se cifra en un ±1,87% para el conjunto de la CAPV, con un nivel de confianza de 95,5% y p=q=0,5.

Se ha llevado a cabo un **control** telefónico del 67,6% de las encuestas y un control domiciliario del 8,2% de las mismas. Asimismo, se han realizado todos los controles informáticos pertinentes -lógicos, de coherencia y de rango- en cada uno de los cuestionarios recogidos.

La **fiabilidad y validez** de los datos queda garantizada en base al empleo de una muestra adecuadamente representativa, tanto para el conjunto de la CAPV como para cada uno de los tres Territorios Históricos, así como mediante la evaluación de las diferencias entre los resultados finales de la encuesta con otras referencias externas objetivas publicadas, siempre que existen datos contrastables. Nos referimos, concretamente, a la distribución oficial de voto en las Elecciones al Parlamento Vasco de 2005 y a las cifras oficiales de edad, sexo, nivel de estudios, situación laboral y nivel de euskaldunización.

(*) El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por el Eustat.